

# DEKOLONIALITATEA

MUGIMENDU FEMINISTAREN ERRONKA



LARRUN #257

# NOLA ASKATU KOLONIALITATEAREN MATAZA, ANTI-ARRAZISTA DEN MUGIMENDU FEMINISTA EHUNTZEKO?

EGILEA | **AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA**  
AZALA | **JOSEBA LARRATXE JOSEVSKY**

**D**ekolonialitatea, anti-arrazakeria, ez dira bart mahaigaineratutako terminoak Euskal Herriko mugimendu feministaren baitan; kontrara, eta orriotako hizlariek ñabartzen dutenez, bada denbora kide migratu eta arrazializatuak interpelazioak egiteari eta praktika dekolonialen beharra azpimarratzeari ekin ziotela. Zentzu horretan egindako lanketaren ondorio gisa ulertu behar da iazko azaroan Durangon burutu ziren Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetan dekolonialitatearen gaiari mahai zentrala eskaini izana. Arrazaren kategoria sozialak mugimendu feministan zein islada duen seinlatu zuten bertatik, eta aditutakoak inor gutxi utzi bazuen epel, giroan gorpuzten joandako deserosotasuna itogarri bilakatu zen mahai-inguru ostean jazotako eraso arrazistaren berri jakindakoan. Argi eta garbi, aurrera begirako etxeko lanen artean bazegoen bat bere-

ziki mardula, baldin eta egiazki aniztasunari toki egin nahi bazitzaion. “Elkarrekin ahal dugu, baina dekolonizatuta”, jarri zuten bidean aurrera egiteko baldintza mahai dekolonialetik.

Jardunaldietatik urtebete igaro den honetan, barrenak egonkortzeko eta orduko sentimenduak aztertzeko tarteak izan ostean, mugimendu feministako bost kiderekin egin dugu hitzordua gaiaz hitz egiten jarraitzeko. Deustuko Gazte Lokalean bildu gara, dekoloniala izango den feminismo baterantz bidea nolakoa ari den izaten eta aurrerakoan nolakoa izan beharko lukeen hitz egiteko. Prozesu baten hastapenetan gaudela eta koadernoak erdi-zuri dagoela diote kideek, baina orain artean bakoitzak egindako lana oinarri, koloniala izango ez den eta anti-arrazismoa bere agendaren erdigunean jarriko duen feminismoa ehuntzera bidean segi beharreko bide-orrian trazatu dituzte zenbait puntu.

---

**LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA** · ARGIAren 2.710 zenbakiarekin banatua.

**JABEA:** KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L. **HELBIDEA:** ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABLOIA 20160 LASARTE-ORIA **TELEFONOA:** (00 34) 943 37 15 45

**POSTA ELEKTRONIKOA:** LARRUN@ARGIA.EUS **INPRIMATEGIA:** ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA **DISEINUA:** MAITANE GARTZIANDIA

2020ko azaroaren 29a

---

Orain urtebete burutu ziren Durangoko jardunaldi feministetan argi ikusi zen dekolonialitatea zela Euskal Herriko Mugimendu Feministaren agenda partekatuan erronka nagusienetako bat. Zein da igarotako denbora tartean zuetako bakoitzak ildo horretan egin duen lana?

**GARAZI GOIENETXEA:** Berriki argitaratuko den jardunaldie buruzko liburuaren harira, egin dugun lana berrikusten ari nintzen aurrekoan. Duela urtebete pasa idatzitako gazetan erreparatzean, behin baino gehiagotan pentsatu nuen orduko hartan idatzitako hori beste era batera esango nukeela orain. Bada bi-dea egiten ari garenen isla.

Euskal Herriko Emakumeon Mundu Martxan (EMM) prozesu interresgarria hasi genuen. Urtean zehar burutu da Emakumeen Mundu Martxaren V. Nazioarteko Ekintza, baina bizitzen ari ginen shock eta pandemia egoera tarteko, Euskal Herrian orain-tsu arte atzeratzea erabaki genuen.

Transnazionalak, migrazioak eta mugak dira ekintzaren gaiak, eta horiei heldzen joan garen heinean, ohartu gara EMMko kide guztiok ez gaituztela era berean zeharkatzen; zentzu horretan polita bezain gogorra ari da izaten arreta hor jartzeko ariketa. Laburbilduz, eta prozesuaren nondik norakoen ideia bat egin dezazuen: ekintzaren lantalde dinamizatzailean denak gara zuriak bat izan ezik, migratu duen pertsona bakarra dago, horrek duen eragin guztiarekin gairi nondik begiratzen ari gaitzaizkion kontutan hartuz gero. Hain da hala, ezen gaiak lantzen ari ginenean zuzia atera zela sinbolo gisa, ulerturik batzen duen eta komunikatzen duen zerbait dela; baina zubiaren bueltan egin genuen lanketa emakume migratuekin elkarbanatu genuenean, ikaragarri problematizatu zen. Izan ere, nondik begiratzen den, zuzia muga ere izan daiteke, ahalbidetzen duena merkantzien igarotzea baina ez zenbait pertsonena. Bat-batean, asko zegoen sakontzeko. Hortik ti-

raka arakatzeko ibili gara, eta mugimendu feminista eta anti-arrazista-kide migratu eta arrazializatuen hausnarketa eta lanari esker, prozesu bati ekin genion, elkarriketatik baino gertuago zegoena entzutek.

Ireki digute mundu bat –nik hala bizi izan dut behintzat–, ulertzeko beste modu edo logika bat, zenbait gako ematen dituen pribilegioez mintzo garenerako, sistema hau nola eraikia dagoen hizpide dugunerako.

**EMILIA LARRONDO:** Nik ez nituen Jardunaldi Feministak ezagutzen, aurrekaririk ez nuen, eta ezin nezakeen ezta imajinatu ere egin Durangon topo egin nuena. Munduko Emakumeak Babelen (MEB) izenean parte hartu nuen bertan, eta parte hartze hori prestatzeko lanketa bat egin genuen, eskatzen zuena geure buruei galdetzea zein ziren zeharkatzen gintuzten pribilegioak. Zeren MEB talde mixtoa\* da, eta bertan argiki islatzen da bertakoak diren eta kanpotik etorri diren emakumeen arteko kontrastea.

**\*OIN-OHARRA:** Testu honetan, espazio mixtoez mintzo garenean, emakume arrazializatu eta ez arrazializatu biltzen diren espazioez ari gara. Mixtotasun horrek beste aspektu batzuei erreferentzia egiten dienean –generoari kasu– espezifikatu egingo da.



# Mahaikideak



**CONY CARRANZA  
CASTRO**  
Santana, El Salvador, 1963

2004tik bizi da Euskal Herrian, eta eremu feministari dagokionez, ongi etorria Munduko Emakumeak Babel eta Garaipen taldeek egin ziotela dio. Horietan segitzen du lanean egun, eta Garaipenen izenean parte hartu zuen Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetako dekolonialitateari buruzko mahai-inguruan.

Hezitzailea da bokazioz, baina zaintza lanetan dihardu. 2019ko Berdintasunerako Emakunde saria jaso du orain gutxi, eta sariketa erabili du bozgorailu gisa, ondokoa salatzeko: Atzerritarren Legeak eta arrazakeria sozialak emakume migratuen laneratzea etxeko eta zaintza lanetara murrizten dutela.



**AFAF EL HALOUI**  
Sale, Maroko, 1977

2012an iritsi zen Euskal Herrira, eta Munduko Emakumeak Babelen parte bilakatu. Dioenez, bertan bizi izan zuen hasierako ahalduntze prozesu pertsonal zein kolektiboa. Beste zenbait taldetatik ere igaroa da, harik eta 2014an Ahizpatasuna sortzea erabaki zuen arte, iritzirik bere prozesuak balio ziezaiokeela besteren bati integrazio eredu bezala. Emakume marokoarrak zein bertakoak biltzen dituen elkarte soziokulturala da Ahizpatasuna, eta berorren izenean parte hartu zuen Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetako dekolonialitateari buruzko mahai-inguruan.



**EMILIA LARRONDO  
DE MARTINO**  
Puebla, Mexiko, 1983

2017an heldu zen Euskal Herrira, maisutza beka batekin. Jaioterrian hasi zuen feminismoan ibilbidea, eta zorioneko agertu da hona heltzean Munduko Emakumeak Babelekin topo egin zuelako. Taldearen bozeramaile gisa parte hartu zuen Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetako dekolonialitateari buruzko mahai-inguruan.

Mexikon unibertsitatean lan egiten zuen. Behin hemen, baina, atzean utzi behar izan du unibertsitateko lana beka agortzearekin batera, eta bestelako lan prekarioetara dedikatu. "Ohartzen zara hemen ez jaio izanak beste posizio batean kokatzen zaituela", dio.



**NAIA TORREALDAI  
MANDALUNIZ**  
Gernika, 1992

Bilgune Feministako kidea da duela bost urtetatik. Azaldu du erakundeak egindako urteetako ibilbidean zapalkuntza hirukoitzak –genero, klase eta herri zapalkuntza– presentzia konstantea eduki duela, eta oinarri ideologiko horretatik etengabeko birpentsatzea egin dela. Orain dela urte pare bat mugimendu feministaren baitan arrazaren gaia eta praktika dekolonialak mahaigaineratu zirenetik, zentzu horretan lanean ari dira.



## GARAZI GOIENETXEA DÍEZ

Santurtzi, 1990

Unibertsitate garaian batu zitzaion militantziari, borroka feminista tarteko egonik. Alabaina, dio kontzientzia feministaren barneratze kontzienteagoa 2014an gauzatu zuela, herrian Marimatraka talde feminista sortu zutenean. Orduetik prozesu feminista ezberdinetan "sartu du muturra", eta horrela heldu da Emakumeon Mundu Martxara. Espazio hori aurkitzeaz oso pozik dagoela adierazi du, eta gogotsu ari da dekolonialitatearen bueltako prozesuan buru-belarri.

Nahiz eta bi multzo horien baitan ere dibertsitatea badagoen: bertako emakumeen artean badira lan prekarioak dituztenak, lan duina dutenak, sexu arau normatiboarekin bat egiten dutenak eta ez dutenak, landa eremuan bizitzea zer den ezagun dutenak eta hirian baino ez direnak bizi izan; eta emakume migratuen artean berdin, aniztasuna da nagusi, eta ez soilik beren jatorrizko herrialdeei dagokienez, baizik eta bakoitzak badakarrelako historia bat berekin. Dibertsitate hori guztia testuinguratzea nahiko problematikoa da, baditu hainbat inplikazio, baina jardunaldien harira enfasi gehiago jarri genuen egiteko horretan, ildo horretan lan egiteko aitzakia eman zigun. Zaila baita gaiari eutsi eta sakontzea, sentiberak diren hainbat kontu ukitzea baitakar. Ildo horretan orain arte egin dugun lana oso mardula ez bada ere, hasi gara bidea egiten. Nik uste zerbaiten hasiera dela.

Lanketa bi eremutan burutu dela esango nuke: barrurantz eta kanporantz. Barrurakoan, hasi gara hizketan eta zehazten zein diren markatu gaituzten zapalkuntzak edota esperientziak, hainbat min ageriko eginez. Egiteko horretan eta emakume migratuen artean, batzuetan badirudi kompetentzia moduko bat dagoela sufrimendu maila handiagoa akreditatzeko; eta hori oso balekoa da, baina baita landu beharrekoa ere, ez baita osasuntsua hor geratzea. Hargatik, kontua da nola igaro gaitzkeen min horietatik osatzea ahalbidetuko diguten tresnak eskuratzera, sendaketa hori maila pertsonaletik harago eramanez eta baliatuz beste emakume batzuekin saretzeko. Hori baita kontua, ezta? Mina sendatu behar da, zenbaitetan minak eragiten baitu pertsona bere baitara biltzea eta elkarrizketa oztopatzea.

Kanpora begira ere egin da lanketa, beste talde batzuekin, migratuak eta bertakoak diren emakumeen arteko elkarrizketa ahalbidetzen duten tailerrak burutuz adibidez. Ni ez naiz horietako askotan egon, baina asanbladetan elkarbanatu denaren arabera, bi zipenok eragin dute norbere buruarekin konfrontazioak izatea eta beste errealitate batzuek jabetzea. Zentzu horretan, gogoan dut sindikalista den lagun batekin hizketan ari nintzen baten nola komentatu zidan nahiko nagusia zen eta garbitzaile gisa lan egiten zuen emakume baten kasua; antza emakume hark hogeita hamar urte inguru zeramatzan lan horretan eta inoiz ez zuen astebururik libre izan. Emakume hura nongoa zen galdetu nion nik lagunari, eta hark erantzun zidanak harritu ninduen: emakumea bertakoa zen.

Esan nahi dut batzuetan gure iruditegian ez dugula imajinatu ere egiten bertako emakumeak aipatutakoa bezalako esplotazio egoeretan egon daitezkeenik. Horregatik, uste dut erronka bat dela norbere esperientziaren mugen barruan itxirik geratzea ekiditea, hori ahalbidetzen duten bideak eskura izatea. Gu aipatutako bi lanketa espazioak sortzen ahalgindu gara esperientzia ezberdinak elkarbanatu eta horiez harago begiratu asmoz, behatzeko zer eduki genezakeen komunean. Gure arteko ezberdintasunak, egiatan, sistemak eragiten baititu, eta hark denok zeharkatzen gaitu, nahiz eta maila ezberdinetan egin. **AFAF EL HALOUI:** Jardunaldiak amaitu eta gutxira ekin genien Martxoaren 8ko antolakuntza lanei, eta ardatz anti-arrazista osatzeko iniziatiba mahaigaineratu zen. Ahizpatasunak bertan parte hartu zuen, eta ohartu nintzen bazezgoela ezinegon moduko bat eta barruan daramaguna soltatzeko

gogo. Kontua da gure artean talkak egon zirela. Lehia antzerako zeozer zegoen tarteko, protagonismo nahi bat edota norbere ahotsa entzunarazteko gogo, nolabait esateko. Martxoaren 8ko ardatz anti-arrazistan gertatu zen horri buruz publikoki hitz egiten dudan lehen aldia da, ez da gaur arte inon argitara atera. Buila modukoa egon zen, eta hark sorrarazi zigun minarekin geratu ginen, sentimendua ezin bideraturik, Martxoaren 8a eta gero ezarri baitzen konfinamendua. Hortik aurrera, arazo larriak sortu zitzaizkigun: indarkeria poliziala, arazo ekonomikoak edota indarkeria matxista areagotu egin baitziren. Ildo horretan lanean jarri ginen, beste ezertara baino gehiago.

Txirotasuna, alokairuarekin lotutako arazoak, Lanbiderekin arazoak, indarkeria matxista... horrelako eskariei erantzuteaz arduratu izan gara gehienbat Ahizpatasunan. Komunitate gisa pairatzen ditugun injustiziak eta horiei lotuta heltzen zaizkigun eskariak hainbeste izanik, ezin izan dugu bestelako jardunaldi feminista batzuek eskatzen duten lanketa egin. Jardunaldiak eskatzen zuten lana handia eta ikasia zen. Hala bada, jardunaldiak heldu

zirenean geure baitarako pentsatu genuen: “Zer azaleratu behar dugu hor? Zer esan behar dugu?”. Saiatu ginen ikusarazten musulmanak diren eta musulmanak ez diren feminismo arabiarraren aniztasuna, bistaratzeko denok ez daukagula

“

**GURE ARTEKO  
EZBERDINTASUNAK,  
EGIATAN, SISTEMAK  
ERAGITEN DITU,  
ETA HARK DENOK  
ZEHARKATZEN GAITU,  
NAHIZ ETA MAILA  
EZBERDINETAN EGIN”**

EMILIA LARRONDO

diskurtso berbera eta horien baitan badaudela hainbat errealitate kontrajarri. Orain hasi gara, bagabiltza, feminismoan abaniko handia zertxobait lantzen, feminismo musulmanak eta ez musulmanak, amaizihak zein magrebtarrak, barnebil-

duz. Baina esan bezala, gehienbat eguneroko beharriaz erantzuten aritu gara, ekonomikoei kasu.

**NAIA TORREALDAI:** Durangoko jardunaldietan, gu europar hiritar txuri gisa interpelatuak izan ginen, euskaldun gisa interpelatuak, eta hor gatazka egon zen. Bilgune Feministatik (BF) egin dugun irakurketaren arabera, interpelazioa eta gatazka bere horretan ez dira txarrak, eta hori azalerrateza izan daiteke aberasgarria ere. Horregatik, guretzako lehen pausoa azalerrateza zen guztia entzutea da, entzuketa aktibo bat egitea, ostean entzundakoa aztertu eta horren araberrateza ardura hartzeko. Entzuketa aktiboa, beti ere homogeneousatu gabe esan zen guztia, joera egon badagoelako esateko “mahai dekolonialetik esan zitzaigun...”. Baina mahai-inguru horretan gauza oso ezberdinak esan ziren, eta guri interesatzen zaigu perspektiba ezberdin horiek jasotzea. Azken urte honetan entzun egin dugu irakurri baino gehiago.

BFn espazio ezberdinak sortu ditugu erreproduzitzen dugun arrazakeria lantzeko, izan maila individual, sozial zein instituzionalen. Aztertu nahi dugu zer joan gaitzkeen aldatzen. Guretzat oso garrantzitsua da praktika, barnerrate behar dugun teoriak gain. Alegia, planteatzea nola eraman hau guztia praktikara. Eta zentzu horretan, guretzat oso garrantzitsuak izango dira abenduan egingo ditugun Emakume Abertzaleen Topaketak. Denboran atzeragotik ari ginen ikusten hitz egin beharra zegoela mugimendu feministan gertatzen ari zenaz, aztertu behar genuela nola kokatu daitekeen arrazaren ardatza gure proiektu politikoan, eta begirada gaurkotu. Egin nahi dugun ariketa ondokoa da: batetik, gure zapaldu-zapaltzaile posiziotik, ditugun ardurak eta pribilegioak landu; eta bestetik, ikusi nola lurrerrate ditza-kegun gure esperientziak, bizipe-



**FEMINISTON HERRIA.** 2018an Bilbon egin ziren Emakumeen Mundu Martxaren Nazioarteko Topaketen harira antolatuta zen, Euskal Herriko mugimendu feministak martxan dituen alternatibak bistaratzeko.



ECUADOR ETXEA

nak eta zapalkuntzak hain anitza den mugimendu feministan. Hori bai, guretzat beharrezkoa da prozesu partekatuak elkarrekin josten jarraitzea.

**A. EL HALOUI:** Gustatu zait esan duzun gauza bat, eta azpimarratu nahiko nuke. Jardunaldietako dekolonialitatearen mahaia ez zen zerbait homogeneoa. “Mahai dekoloniala” deitzen zaio, baina bertan ordezkaturata zegoen talde eta komunitate bakoitzak baditu eskakizun ezberdinak, eta feminismoaren ulerkera propioak.

**█ Dekolonialitatearen gaiak sortu zuen deserosotasunik jardunaldietan. Cony, egun haietan ARGIAri eskaini zenien elkarrizketan aipatzen zenuen deserosotasun eta min hori izan zitekeela inflexio puntu bat, baldin eta sentimenduok geure egiten, onartzen, bagenituen. Atzera**

**begirako errepassoa eginda, eta egungo testuingurua behatuta, inflexio hori eman dela edo inflexio hori emateko hazia ernatzen ari dela deritzozue? Zer egin dugu edo ari gara egiten deserosotasunekin?**

**CONY CARRANZA:** Nik sentsazio ezberdinak izan ditut. Esango nuke batzuk itzuli nahi dutela gaiaren bueltan pentsatzera eta erantzunak biltzera, eta momentuka iruditzen zait dekolonialitatean aditu bilakatu direla. Ondo dago irakurtzea, baina MEBen nahi duguna da hori guztia lurreratzea, praktika anti-arrazistak egitea. Ikusi ditut, baita ere, minduta dauden kideak, beren elkartasuna zalantzan jarri dela sentitu dutenak. Esango nuke gu ez garela ari gertuko kide horien elkartasuna ezbaian jartzen, baina nola ulertarazi maila makroago bati begira egindako salaketa dela eta gure ondoan nahi ditugula? Uste dut zenbait atzera egin dutela eta orain

ez daudela lehen bezain prestu. Min egiten duen zerbaiten aurrean erantzuteko modu ezberdinak ditugu: edo ez dugu bat egin nahi, edo banandu egiten gara, edo batu egiten gara gure amorruari bide emateko. Nik ez dut pentsatu nahi karga bat denik, aukera bezala ikusi nahi dut, behar duguna gainera. Behar dugu ahotsen pluraltasuna, egoteko moduen aniztasuna. Eta gaur inoiz baino gehiago, feminismoak izan behar du anti-arrazista, gure herrien odolusteak, espolioak... denok behar gaituelako, denon konpromisoa behar delako. Uste dut baretu beharra daukagula, baina nahi dut sinetsi ondo goazela erantzunak bilatzera bidean. Eta gure ondoan geratu nahi dutenak, geratuko dira.

Duela denbora, kide feministen artean egin genuen hausnarketa baten harira, latindarrei esan zitzaigun ez ginela feministak, falta zitzaigula oraindik feminista izatera

iristeko, eta norbaitek esan zuen: “Bada gu tontorrera igotzera goaz, eta ea bertan aurkitzen garen”. Eta nik diot oraingoan ez dela hala izango. Honako honetan bidea elkarrekin egingo dugu, bai ala bai bidezidorrak elkarrekin bilatuz.

**E. LARRONDO:** Conyck esandakoari zera gehituko nioke: batuko garela beren buruak berrikusteko prest dauden emakumeekin, gu ere horien artean gaudela ulerturik. Zeren emakume migratu edota arrazializatuen kolektiboko parte bagara ere, geu ere zeharkatzen gaituzte hainbat ezberdintasunek. Alegia, kontua ez dela ondokoari “berrikusi zaitez zu!” esanez pilota pasatzea. Norbera ere berrikusi behar da, denok egoera berdinean ez gaudela jakinik, hori bai.

**A. EL HALOUI:** Diot nik oraindik goizegi dela ondoriorik ateratzeko, goizegi inflexio puntu bat eman den ala ez esan ahal izateko. Izan gaitezen zintzoak: gaitza diagnostikatu besterik ez dugu egin. Lan asko dago egiteke, eta lurra ere ez dago landua oraindik. Egin behar dena da lur hori lantzen joan, eta “noiz? nola?” bezalako galderi erantzun.

**N. TORREALDAI:** Gehitu nahiko nuke Durangoko jardunaldietan gatazka oso ikusgai bilakatu zela 3.000 emakumek parte hartu zutelako, telebistaz emititu zelako, hedabideetan presentzia izan zuelako. Baina uste dut azpimarratu beharra dagoela korapilo hori urteak atzeragotik datorrela Euskal Herriko mugimendu feministaren baitan. Hori mahaigaineratu beharra dagoela deritzot, bestela bait badirudi bat-batean, orain urtebete, agertu zela gaia. Guretzat EMM da interpelazio hori egin eta praktika dekolonialen beharra azaleratu zuen espazioa, eta orain zenbait urtetaz ari naiz. Uste dut horri aitortza egitea beharrezkoa dela. Jardunaldien aurretik egindako hainbat Martxoaren 8tan ere kontu hori mugimendu feminis-

tako militanteen buruetan zebilen. **E. LARRONDO:** Agian hori guztia jardunaldietan katalizatu zen, ezta? Zeren nik bai uste dudala espero gabe eroritako molotoff koktela izan zela.

**N. TORREALDAI:** Bai... baina bazi-rudien mugimendu anti-arrazista, emakume migratu eta arrazializatuak, jardunaldi horien bitartez heldu berri zirela mugimendu feministara. Eta hori gezurra da. Hainbat espaziotan topo egiten joan gara.

**E. LARRONDO:** Nik uste dudana da ez dutela izan ahotsa, edo soilik berriak osatutako mahai bat.

**N. TORREALDAI:** Bai, noski. Hori bai izan zen historikoa. Lehen mahai dekoloniala izan zen.

**E. LARRONDO:** Bada horrek asko esaten du, hortxe baitago aipatu duzun aurre-eztabaida horren guztiaren fruitua, ezta? Mahai bat jarri zen berriaz kontu horiek problematizatzen.

Durangon aipatutakoekin segiz, unibertsalizatzea eta homogeneizatzea kolonizatzea dela oharturik, EHko Mugimendu Feministaren subjektua anitza eta inklusiboa izan behar dela ere argi geratu zen. Kontua da aniztasunari izaera alaia eman ohi zaion arren, Itziar Ganda-

riasek esan zuen bezala, gatazkekin, desadostasunekin, interpelazioekin duela lotura estua. Eta hori horrela, elkarren arteko hurbiltasuna landu behar dugula, baina era berean distantziak kudeatu ere bai. Nola mantentzen da oreka?

**C. CARRANZA:** Gandariasek dioen bezala, aniztasuna landu egin behar da. Nik oraindik ez dakit nondik joko dugun, laino artean bezala nago. Baina bai uste dut, esan den bezala, entzuketa aktiboa behar dugula. Ezin diogu beldurrik izan elkarrekin batzeari, kuestionatzen jarraitzeari, praktika anti-arrazistak bilatzen jarraitzeari. Eta zuriek hor egon nahi badute, posible dute, lehen begi kolpean hain garrantzitsuak ez diruditen zenbait konturekin: norbaitekin ezkondu paperak lortzeko, laguntza eskaini alokairua edo erroldatzea lortzeko... mila konturekin lagundu dezakete. Nahi izatera, aurkitu daitezke gauza txiki horiek. Baina horrek eskatzen du entzumen eta begirada feminista eta anti-arrazista.

Koaderno bat dugu orri zuriz beteta, lanean jarraitzeko, beste esperientzietatik ikasiz. Nik esperantzak baditut, uste dut posible dela zer-bait eraikitzea.



#### FEMINISTON HERRIA

Emakumeen Mundu Martxako Nazioarteko Komite berriko kideak oholtzan.





ECUADOR ETXEA

**A. EL HALOU:** Conyk hasitako bide-tik, niri ere garrantzitsuak iruditzen zaizkit egunean eguneko babesa eta konplizitatea. Dela errolda, dela alokairua edo papeleoa... ondo dago hor egotea. Baina ez tutoretzatik, garrantzitsua da hori azpimarratzea ere. Ondo dago hor egotea, baina norbere burua eta pribilegioak berrikusteari utzi gabe. Egunean eguneko gauza horiek egiten badira –eta egin egin behar dira, egin-beharrak dira–, hitz egin dezakegu emakumeen arteko elkartasunaz. Elkartasun horretan gakoak dira tutoretzak alboratzea, batzuen eta besten arteko arrakala murrizten joatea.

Horrez gain, biltzen garenean eta feminismoari buruz gure ikuspuntuak ematen ditugunean beharrezkoa da ahotsa ematea eta entzuketa aktiboa egitea. Asko dago egiteke. E. Larrondo: Gustatu zait, Afaf, zenbait kontu eginbehar bezala plan-

teatzea. Bertako zein migratu izan, pribilegio maila ezberdinak daude. Eta pribilegioek bati ematen dioten

“

**IZAN GAITEZEN  
ZINTZOAK: GAITZA  
DIAGNOSTIKATU  
BESTERIK EZ DUGU  
EGIN. LAN ASKO DAGO  
EGITEKE, ETA LURRA  
ERE EZ DAGO LANDUA  
ORAINDIK”**

**AFAF EL HALOU**

tokitik zenbait ekintza gauzatzeak, sarri, ez du pribilegio hori baldintzatzen eta era berean laguntzen du

beste pertsona horrekiko dagoen arrakala murrizten. Horrekin batera, espazioak uztea ere bada egiteko bat.

Asko dira egunerokoan egin daitezkeen gauzak, eta gero agenda politikoa dugu, problematikak hor adierazi beharra dago. Bi maila horietan, makroan eta mikroan, jardun behar dela uste dut; horrek gida gaitzake bestelako praktike-tara. Erabateko aldaketa epe luze-rakoa dela uste dudaren arren, egunerokoan eman daitezkeen zenbait aldaketek 360oko aldaketa eragin dezakete pertsona migratu eta arrazializatuen bizitzetan.

**N. TORREALDAI:** Nik uste gakoetako bat elkarrekiko aitortzan eta enpatian dagoela. Zeren jardunaldietan, momentu batean, gu-zuek artifizial bat sortu izanaren sentsazioa egon zen. Posizio ezberdinak daude gure artean, bai migratu eta arrazializatu artean zein bertokoen artean. Az-

ken finean generoa ez baita esperientzia unibertuala. Lehen erronka hor legoke: posizio horiek bistaratu eta zehaztean. Eta zentzu horretan, guk uste lana dagoela egiteke botere harremanei dagokienean. Eta gero bultzatu beharko lirateke praktika dekolonialak, lurreratuak eta katuak izan beharko liratekeenak, komunitatea eraikiko luketenak eta egunerokotasunetik praktikak ehunduko lituzketenak. Hori guztia, nola ez, tutoretzetan erori gabe.

Barruak mugitzen dituzten gaiak dira, eta argi eta garbi, erresistentziak daude. Zentzu horretan uste dut erantzukizunez begiratu behar zaiela erresistentzia horiei. Hor daudela onartu, eta pentsatu zer egin berauekin, nola eman buelta eta praktika anti-arrazista eta dekolonialak inplementatu. Eta hor, nik uste, gakoa da konfiantza sortzea. Izan ere, elkarbizitza esperientzia errealak dira bidea egiten joatea ahalbidetuko digutenak. Eta hor sartzen da praktika dekolonialak gauzatea, eguneroko behar materialen aurrean irtenbideak aurki-

tzea. Conyk bezala, neuk ere uste dut Euskal Herrian aukera daukagula zerbait sortzeko, eta gako horiek lagungarri suertatu ahal zaizkigu.

“

**ERANTZUKIZUNEZ  
BEGIRATU BEHAR ZAIE  
ERRESISTENTZIEI. HOR  
DAUDELA ONARTU, ETA  
PENTSATU ZER EGIN  
BERAUEKIN, NOLA EMAN  
BUELTA ETA PRAKTIKA  
ANTI-ARRAZISTA  
ETA DEKOLONIALAK  
INPLEMENTATU”**

**NAIA TORREALDAI**

**G. GOIENETXEA:** Nik kontu bat gehitu gura nuke. Gure iruditegian aniztasuna era batean irudikatzen dugu, baina gero errealitatean bestelakoa

da paisaia: botere harremanak, egiturak... aniztasuna horrela bizi eta gorpuzten da egiazki. Hori horrela, eta Angela Davisek esandakoak ahotan hartuz, azpimarratu nahiko nuke borroka anti-arrazistak borroka feministaren erdigunean egon behar duela. Agian hori izan daiteke eragin dezakeena elkarren arteko hurbilketa, eta aniztasuna geroz eta parekoagoa izatea.

**A. EL HALOUI:** Gertutasunei eta distantzietan buruz galdegin, eta guk arrakaletara jo dugu. Horrek badu arrazoirik: arrakaletan dago gertutasuna eragin diezagukena. Bretxak kendutakoan, gertutasunak eraiki ahalko ditugu horien tokian. Desparekotasunak landu ezean ez baitago gertutasunik.

**G. GOIENETXEA:** Horregatik uste dut dela garrantzitsua borroka anti-arrazista agenda feminista bateraturara ekartzea eta hortik lan egitea. Ez dezagun atzeritarren legea hartu, berorren aurka garrasi batzuk egin eta kontua hor utzi, periferian, gure proiektu politikoaren agendan zentraltasunik ez duelako.



ECUADOR ETXEA



**V. JARDUNALDI  
FEMINISTAK**

Euskal Herriko jardunaldi feministen historian lehen aldiz, dekolonialitateari mahai zentrala eskaini zitzaion. Ezkerreko argazkian, mahi zentral horren ostean jasotako eraso arrazista gaitzesteko agerraldia.

LAIDA ZAPRE

**E. LARRONDO:** Hori MEBen ere azaleratu zen: emakume migratuen instrumentalizazioa, ekintza batera joatea errepresentazio kuota bezala beste ezer baino gehiago. Hemen kontua da errepresentazio hori hezurramitzea norbere bizitzan edo kolektiboan hobekuntzak egon daitezen.

■ **Distantzia eta gertutasunez hizketan ari garela... Espazio mixto eta ez mixtoen existentzia izan daiteke oreka horren kalibratzailer? Zein irakurketa egiten duzue espazio horietako bakoitzaz?**

**C. CARRANZA:** Ni neu, bai MEBen zein Garaipenen, bertako emakumeekin aritzen naiz. Noski, bide hau egiteko prest dauden emakumeak dira gehienak. Baina egia esan, espazio horiek burbuilak dira. Errealitatera ateratzen zara eta ikaragarria da. Nik gainera badut ahots hau, azal kolore hau, hazpegi hauek... arrazializatua naiz. Gogorra da hitzetan jartzea eguneroko arrazakeriak esan nahi duen guztia. Baina hala ere, Garaipen bezala esan ge-

nuen moduan, gu espazio mixtoen alde gaude. Beti ere beren gela propioan egon nahi dutenak errespetatuz. Badira hainbat urte MEBen gela propioak osatzen hasi ginenetik, gureak eta bertako emakumeenak, eta segi nahi dugu horiekin. Beraz nik ez dut Raizes bezalako talde bat kuestionatu nahi. Hortik egin nahi dutela tira? Beraiek egingo dute beren lana eta bidea, eta ederra izango da egunen batean bestelako hausnarketa bati ekin nahi badiote. Are gehiago, uste dut ari direla egiten. Errespetu handia diet espazio mixtoetan egon nahi ez dutenei, baina nik, gaur gaurkoz, espazio mixtoetan egon nahi dudala diot. Deseraiki eta eraldatu nahi duten emakumeekin, eta neu ere etengabeko eraldaketarako aldaratearekin.

**A. EL HALOUI:** Conyrekina bat nator ni ere: espazio mixtoetan egotea beharrezkoa da. Kontrara, ezinezkoa izango da gauzatu nahi dugun aldaketa bultzatzea. Zeren espazio ez-mixtoek guettoak eskaintzen dizkigute, ateratzen gaituztenak hainbat zapaluntza eremutatik...

baina haserre egoteko modu bat ere badira. Eta haserre gorrotora darama, eta gorrotoak banantzera. Ni neu, eta baita Ahizpatasuna ere, espazio mixtoen alde gaude. Lehen esan bezala: tutoretzarik gabe, zeren kontua da ondokoa babestea eta laguntzea, ez biktimizatzea. Zuri eta migratu elkarrekin arituko bagara, aspektu horiek zaindu behar dira, barrura begirako lanketa egin. Ziur liskarrak egongo direla, baina izango dira porturen batera iritsiko diren gatazkak. Gatazka horietatik igaro gabe ez da egongo aldaketarik, nik uste. Hala ere, talde mixtoak baldin badaude hain haserre, zerbaitengatik izango da. Eta babesu behar badira babestuko ditugu. Baina uste dut talde mixtoetan egon beharra dagoela.

**E. LARRONDO:** Nik, laburbilduz, esango nuke ez direla elkarrekiko baztertzailerak. Baliteke talde bateko kolektibo jakin batek behar izatea momenturen batean bere espazio propioa. Baina gero elkarriketa bat ematen ez bada talde ez mixtoan landu den horren inguruan, zaila



ECUADOR ETXEA

da kontrastatzea. Eta katramilatzen zara diskurtso bakar horretan. Beraz, nik uste dut ez direla elkarrekiko baztertzailak, espazio bakoitzak baduela bere momentua eta erantzuten diela beharizan ezberdinei, baina garrantzitsua deritzot bien arteko konbinazioari.

**G. GOIENETXEA:** Emakume zuri bezala, ikaragarri kostatzen zait nire iritzia ematea. Baina diot nik espazio ez-mixtoak sortzeko beharriaz baldin badago, zeozerrengatik izango dela. Egiten dudana analisia mugatzen da emakume bezala nik egin dudanaekin konparaketa egitera. Gizonik onartzen ez duen talde feminista baten parte naiz, eta talde horrek badu ez-mixto izateko bere arazoia. Arraza tarteko dagoen kasuetan, parekoa iruditzen zait. Adibide hori darabilt ispilu gisa. Eta neuk ere uste dut ez direla elkarrekiko baztertzailak.

Bestetik, pertsonalki espazio mixtoetan parte hartu ahal izateaz oso eskertuta nago. Aitortzen dut behar ditudala. Kide migratuei beharbada egin beharko ez nituzkeen galderak maiz egiten dizkidan arren, neuri baitagokit neurea lantzea. Baten batek egun hauetakoren batean pikutara bidaliko nau, beti egon behar direlako anti-arrazakeriaren edo dekolonialitatearen algodoia niri pasatzen. Zeren hori ere gertatzen da.

**N. TORREALDAI:** Uste dut BFri ez dagokiola honetaz hitz egitea. Guri kide migratu eta arrazializatuek dituzten eztabaidak entzutea dagokigu, beraiek dira hitz egin behar dutenak borroka anti-arrazista eta feminista antolatzeko moduz.

**E. LARRONDO:** Ba nik hor atza sartuko dut. Kulturarteko elkarriketa saio batean egoteko aukera izan nuen, eta oso interesgarria iruditu zitzaidan, azaleratu baitziren migratuek geneuzkan bertako emakumeen hainbat estereotipo, eta alde-rantziz. Horiek elkarbanatzea itzela

izan zen. Oso gogorra izan zen plazaratutakoa aditzea. Saio hartakoa ez zen agian lanketa asko egin duen talde feminista, emakume arruntak ziren, baina hala ere iruditzen zait zenbait kontu landu ditugunok ere erreproduzitzen ditugula halako ideiak. Hargatik, uste dut ondo legokela bertako emakumeek ere izatea espazioak, beren komunitateetan kanpoko emakumeak izateak eragin dienaz hitz egiteko. Agian ez da politikoki zuzena horretaz mintzatzea, baina hor dauden kontuak dira eta ondo legoke horietaz hitz egitea.



**BRETXAK  
KENDUTAKOAN,  
GERTUTASUNAK ERAIKI  
AHALCO DITUGU  
HORIEK TOKIAN.  
DESPAREKOTASUNAK  
LANDU EZEAN  
EZ BAITAGO  
GERTUTASUNIK”**

**AFAF EL HALOUI**

**C. CARRANZA:** Saio horretan itxiera garrantzitsua izan zen, argi geratu baitzen antzerako kontuek zeharkatzen gaituztela. Antzerako beldur-rak azaleratu ziren: bakardadeari, zaharkitzeari, tristurari...

**E. LARRONDO:** Puntu komun horiek bilatzea da kolektibo gisa indartuko gaituena. Eta horrek ez du esan nahi ezberdintasunak ezkutatzea. Hemen baldin bagaude esfortzu hau egiten, guztioi zeharkatzen gaituzten hainbat gauza daudelako da. Nik uste elkarren arteko zubiak eraikitze gakoak direla elkarri entzutea, errespetua izatea, eta eraiki nahi izatea.

**■ Durangon bertan ikusi genuenez, (de)kolonialitatea hizpide hartzeak eragin ohi du herri honen zapalkuntzarekin konparaketak egitea. Nola elkar gurutzatzen dira bi prozesuak?**

**E. LARRONDO:** Garrantzitsua deritzot gaiari buruz hitz egiteari, bi prozesu ezberdin iruditzen baitzaizkit, konparatu ere egin ezin direnak. Euskal Herriak jasan duen zapalkuntza gutxiesteko inolako asmorik gabe. Iruditzen zait Hego Amerikako kolonizazioak, zeina ezberdintzen den Afrika eta Asiako kolonizazioetatik, mugarri bat jarri zuela. Horrek ahalbidetu baitzuen arraza kategoria bezala; aurretik pertsonak ezberdintzen ziren hazpegien arabera, baina ezberdintze horrek beste indar bat hartu zuen Hego Amerikako kolonizazioaren bitartez. Uste dut inflexio puntu horretantxe inauguratu zela sistema kapitalista hau, zenbait bereizketa ardatz dituen: emakume eta gizon ezberdintzen dituen, baliabideetara sarbidea nork duen zehazten duena, eta baita ere arrazaren arabera bereizten duena.

Kolonizazioaren ondorioz, herri-erri esperientzia zeharkaturik dago bortxaketa masiboz, esplotazioz, diskriminaziorik gabeko hilketaz, errepresentazioa galdu eta ehuneko urria izatera igaro ziren populazioen bizipenaz; eta egun prozesu horrek segitzen du mar-txan, bestelako moduz. Esperientzia hori, bere horretan, ez du uste Euskal Herrikoaren esangura berekoa denik. Alegia: hemen egon den zapalkuntzak, munduari begira, ez du izan Abya Yalako konkistak izan zuen eragin berbera. Honekin esan nahi dudana da gaur egun ezagutzen dugun mundua eraikitze gaituzteko funtsezkoa izan zela kolonizazioa, eta hori ezin daiteke konparatu beste prozesu batzuekin. Uste dut osasuntsua dela ezberdintasunak argi izatea, Euskal Herriko esperientzia-ri min gramo bakarria kendu gabe.



ECUADOR ETXEA

**N. TORREALDAI:** Guretzako itaun nagusia da honakoa. Argi eta garbi, ez daukat erantzunik momentuz. BFrentzako ondokoa da egin beharreko galderetako bat: zein motatako gerturatzea egin dezakegu herri zapalkuntzara, dekolonialitateak planteatzen dituen praktika eta teorietatik? Zeren hitz egiten dugunean European desjabetzeak eman ziren garai batez, guri hitzen bat falta zaigu herri honek jasandakoa izendatzeko. Eta ez du zertan izan behar kolonizazioa, ez noa hortik. Baina badugu gure memoria birpatsatzeko beharra, zeren epistemizidiaz mintzo garenean konektatzen dugu hizkuntzarekin, pentsatzeko moldeekin, egiteko moduekin, gure lurrarekin, sorgin ehizarekin...

Bi noranzko dituen prozesuan ari gara: arrazari, pribilegioari... dago-kionez gure buruak berrikusi behar ditugu, eta baita ere, perspektiba dekolonial horretatik, gure memo-

riaren eta historiaren berrikusketa egin. Guretzako garrantzitsua da berrikusketa hori egitea, eta beroren helburu finala da askatzailea izango den eta burujabe izatea ahalbidetuko digun proiektu politikoa garatzea, Euskal Herrian kokatua. Eta horrekin batera euskal komunitate feminista eratzea, maila estrukturalari begira aldarrikapenak eta exijentziak aireratuko dituena. Hori guztia, argi da, egin beharko dugu konparaketak ekidinez. Zeren nik inoiz ez dut jakingo zer den ondokoaren esperientziatik igarotzea, berak ez duen jakingo moduan zer den nik bizi dudana bizitzea.

**G. GOIENETXEA:** Eztabaidari ekarpena egite aldera, eta hau guztia maila pertsonalean nola bizi dudan oinarri hartuta, esango dut niri deserosotasuna sortzen didala gai honek. Zer kasualitatea, ezta? Nori ez, ezta? Deserosotasuna eragiten dit iruditzen zaidalako hausnarke-

ta dekolonialek ispilua egiten digutela, guk landu ez dugun zerbait islatuz. Eta deseroso sentiarazten nau ispilu hori jartzen digutenean guk herri zapalkuntzaren komodina erabiltzea. Haserrea edota deserosotasuna sortzen didana da kideek seinalatzen diguten puntura begiratzen dugunean beste gauza bati begiratzen diogula, ez egiteke dugun lanketa anti-arrazista guztiari. Jardunaldietan, nire iritziz, dekolonialitate mahaian esandakoaren aurrean gure zegokiguna zen isiltzea.

**N. TORREALDAI:** Guztiz ados.

**E. LARRONDO:** Baina gertatu zena erakusgarria da.

**G. GOIENETXEA:** Bada. Kontua da batzuetan erabaki behar dugula zeri eman lehentasuna, agendan dena ez baita sartzen. Orduan, zer da benetan erdian jarri beharrekoa? Nik oso argi daukat: anti-arrazakeria. Badugu horrez gain lan mordoa egiteke, baina momentuotan hori da nire ustez erronketako bat: anti-arrazakeria erdian jartzea.

**E. LARRONDO:** Hasierara itzuliz, eta pixka bat argiago gera dadin zein den prozesu bat eta beste bereizten dituen, gakoa izan daiteke alderatzea territorio horietako bakoitzak egun bizi duen egoera. Bereiztea zer ari den gertatzen Hegoalde globalean eta zer Iparralde globalean. Kolonialismo garaietan hasitako desjabetze prozesuek indarrean baitiraute egun ere, eta hain da horrela batek ezin dituela konparatu, ezta urrutitik ere, batekoen eta bestekoen bizi-kalitate maila. Uste dut gakoa dela territorio batek eta besteak egun duten paper geopolitikoa zein den behatzea, ulertzeko zapalkuntzaren eta kolonizazioaren ezberdintasunak zein diren.

**A. EL HALOUI:** Nik esango dut halako gaiak mahaigaineratzen direnean guk oso urruti ikusten dugula geure burua. Arazoei dago-kionez ere, arrakalak ditugu. Guri gai honek ere mugitzen dizkigu



ECUADOR ETXEA

**FEMINISTON HERRIA**  
Emakume arabiarrek  
Feministon Herria egunean.



Euskal Herriko Emakume Migratu eta Arrazializatuen Sarearen agerraldia, M8 dekolonial baten alde. Besteren artean, feminista mendebaldarrei jakinarazi zien ez zeukatela asmorik feminismo zuriaren argazkiko apaingarri izateko.

barruak, guk ere badugu kolonizazio historia propioa, lausotu ziguten kultura eta inposatu zizkiguten bestelako errealitateak eta bizimoldeak, zapaltzaileak horiek ere. Kolonizazioak pobretu egin gintuen. Baina egun, arreta eguneroko zaugarritasunetan dugu jarritu; egoera horietatik nola atera ere ez dakigu, beraz nolatan kuestionatuko ditugu hain kontu sakonak? Eta hau esaten dut, ulertu dezagun talde ezberdinak biltzen dituen eta “dekolonial” izendatu dugun mahai baten bueltan ere, problematiken artean lehentasun ezberdinak daudela.

**Aurrera begirakoan, zein dira erronkak? Zein indarguneak eta oztopoak?**

**C. CARRANZA:** Niri barruak astintzen dizkit zalantzan jartzen dudan horren parte izateak. Nik harrera egiten diet emakume migratuei, baina lan egiten dudan emakume horiekin kokatzeko modua ez dut oraindik aurkitu; ea herri hezkun-

tzaren bidez aurkitzen dudan. Zapultu egiten dudanik ez dut pentsatu nahi, baina segi behar dut

“  
**IRUDITZEN ZAIT  
HAUSNARKETA  
DEKONIALEK ISPILUA  
EGITEN DIGUTELA, GUK  
LANDU EZ DUGUN ZERBAIT  
ISLATUZ. ETA DESEROSO  
SENTIARAZTEN NAU  
ISPILU HORI JARTZEN  
DIGUTENEAN GUK HERRI  
ZAPALKUNTZAREN  
KOMODINA ERABILTZEA”**

**GARAZI GOIENETXEA**

neure burua berrikusten, aztertze-ko nola garatzen dudan elkarrizketa, nola sortzen dudan gertutasuna,

nola entzuten dudan... ez biktimitatzeko, ez izateko paternalista. Ni beraiek entzuteak elikatzen nau, zeren momentuka sentitzen dut mundu mendebaldar honen parte naizela. Eta nik iparralde honetatik eraiki nahi ditut hegoaldeko hausnarketak.

**N. TORREALDAI:** Ekarpent positiboa eginez, esango dut uste dudala badugula indargunerik: mugimendu feminista autokritikoa dugu, ez diona beldurrik gai hauei buruz hitz egiteari, nahiz eta hain teorikoak eta abstraktuak izan. Eta uste dut, baita ere, geure buruei aitortza egin behar diegula, bada-ramagulako denbora bidea egiten eta horretan segitzen dugulako, elkarrekin topo egiten dugun espazio ezberdinetan.

Erronkei dagokienez, nik badut bat identifikatua: ea lortzen dugun hitz egitea eta eztabaidatzea zapalkuntzak neurtzen ibili gabe, elkarren aitortzatik. Iruditzen baitzait azken urteetan egon dela joera bat erdigunea interpelatzeko; euskal-



ECUADOR ETXEA



ECUADOR ETXEA

dunek, arrazializatuek, bollerek, transek, landagunekoek... mundu guztiak interpelatu du feminismo hegemonikoa. Baina galdera da: nor dago erdigune horretan? Uste dut erronketako bat litzatekeela puntu hori elkarrekin lantzea. Erdigunetik erretiratzea ez baita soilik espazio uztea, bada baita ere eztabaida kritikoak gauzatzeko espazioak eraikitzea. Uste dut posizio pribilegiatuago batean gaudenon eta baliabide gehiago ditugunon eginkizuna dela espazio horiek sortzea. Hor badugu lana egiteko. Eta horrekin guztiarekin batera, nola ez, segi behar dugu kalera ateratzen komunean ditugun etsai eta munstroen aurka, geroz eta egoera zaugarriagoetan baikaude. Niretzat, azken helburua, lan teorikoak egiteaz aparte, bidea egiten jarraitzea da.

**A. EL HALOUI:** Bai, eratu behar ditugu etiketa gabeko espazioak. Eta horietan zaindu beharko dira zenbaitzuen erritmo eta zaugarritasunak: nola helduko den bertara

garraioa ordaintzeko haina ez duena, nola ahalbidetu haurrak dituztenen presentzia... asko dira zaindu beharreko gauzak.

**E. LARRONDO:** Elkarrizketan zehar aipatu den zerbait berreskuratu nahiko nuke ixteko: elkar aitortzearen eta enpatiaren zera hori, eta norbere buruarekin zintzoki lan egin beharra. Ez baikara dimentsio bakar batekoak; kontrara, biktima eta biktimario paperak betetzen ditugu egoeran arabera. Horretaz kontziente izan behar gara, eta elkarrengana gerturatu errespetutik eta entzuteko presutasunetik, elkarbanatzea eta ondokoa ulertzea bilatuz. Azken finean, esan den bezala, gauzak baititugu komunean. Horiek zein diren argi izan behar dugu aurrerapausoak eman ahal izateko. Uste baitut maiz emakume gisa -edo gurutzatzen gaituzten beste zenbait identitateren harira- bizi dugun zapalkuntzak berekin darraren guztiaren handitasunean galtzen garela.

Bestetik, erreparazioaren kontua ere hor dago. Desparekotasunek eragiten duten arrakala murrizteaz eta errealtatea aldatzeaz mintzo garenean, oso ondo dago salatzea eta seinalatzea desparekotasun horiek nola eraikitzen diren egunerokoan, eta zein diren horien ondorioak egunerokoan; zapalkuntzak eta pribilegioak, alegia. Baina behin kontzientzia hori barneratuta, posizionamenduak hartu behar dira eta erreparazioa aldarrikatu. Hau da, ez da soilik hitz egin behar kolonizazioarekin amaitzeaz, hitz egin behar da baita ere Hegoalde globalaren eta Iparralde globalaren arteko desparekotasunen arrakala murrizteko erabili ditzazkegun erreparazio neurriez.

Iruditzen zait alderdi politik ikusi eta erreskatatu behar ditugula, pauso ikaragarri handiak ere eman baititugu. Orekatu beharko genituzke erronkak eta orain arte lortu duguna, geure buruak moralizatzeko. Garrantzitsua dela uste dut. ●

2021a urteurren borobil ugarirekin dator: 500 urte Noingo batailak, 150 urte Parisko Komunak, 100 urte Sobietar Batasunak M8 emakumearen egun izendatu zuela, 25 urte Itoiz urtegitiko kableak moztu zituztela edo Hondarribiko alardean emakumeak lehen aldiz atera zirela, 20 urte Al Qaeda AEBetako Dorre Bikien aurkako atentatuarekin mundua aho bete hortz utzi zuela.

Aurtengo formula baliatuz, **egunero efemeride bat** eskainiko dizugu datorren urtean ere, burujabeak garenez, historia guk ere idatz dezagun.

**AZOKA.ARGIA.EUS**

**943 37 15 45**



10€

+4€ BIDLKETA GASTUAK

**ARGIA EGUTEGIA**